

Hustutako lurraldeetan erein



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Hustutako lurralde kontzeptua gero eta gehiago entzuten da han eta hemen, eta niri bereziki osatua iruditu zait Carlos Taibo pentsalari anarkistaren ikuspegia *Iberia vaciada. Desoblación, decrecimiento, colapso* liburuan (Los libros de la catarata, 2021). Despopulazio arazo estrukturalak eta desperekotasun sozioekonomikoak gurutzatzen diren lurraldeak Iberian zein diren definitzen du. Berehala, eta eskertzekoa da, egoerari aurre egiteko proposamenak egiten ditu, desazkundetik kolapsoari aurre egiteko ikuspegiarekin.

Hustutako Iberiaren marjinetan, Euskal Herriko landa-gune menditsuetan ditugu hustutako lurraldeak, arazoa bereziki larria delarik Pirinioetan. Udalbiltzak arazoaren ikerketa eta lanketa egin du *Hauspotu* proiektuaren bitartez (www.udalbiltza.eus/eu/proiektuak/hauspotu), eta Olatukoopeko lankideekin batera proiektugintza aktibatzeke proposamenekin parte hartzeko aukera ederra izan dut. Hala ere, Euskal Herriko ikuspegi batetik, arazoa oso gai periferiko bezala lantzen dugula uste dut, eta lurralde kohesioaren ikuspegitik lehentasuneko bihurtu behar genuke. Horretarako, gaitasunez eta baliabidez hustutako lurralde desindustrializatuen egoerare-

kin ikuspegiak lotzea proposatzen dut, lurralde hauetan bizi garen biztanleak batzen gaituena bizitzarako baliabide falta eta garapen ekonomikorako estrategia subordinatuak baitira.

Krisi klimatiko eta sozialak egoera okertuko du hustutako lurraldeetan; datorrenari aurea hartu eta 'etorgintza' pixka bat aplikatuko bagenio? Horretarako ezinbestekoa dugu gure lurraldeetan lan eta bizi ahal izateko ditugun beharrak kolektiboki identifikatzea, eta hauei burujabetza estrategikoen lanketarekin erantzutea: elikadura, etxebizitza, zaintza, kultura, osasuna edo mugikortasuna denontzat eskuragarri egingo dituzten tokiko balio kateak eraikitzea, existitzen diren proiektuak indartuz eta ekonomia eraldatzaileko ekimen berriei osatuz.

Gaitasunak, ikuspegiak eta proiektuak saretzen ari gara, subjektu eraldatzaileak eraikitzen, tokiko ekosistema kooperatiboak eta herri kooperatibak sortzen, despopulazioa eta desindustrializazioak hustutako lurraldeen arteko elkartasuna eraldaketarako agendan kokatzen. Bete ditzagun gure lurraldeak bizitzarako beharrezko ditugun baliabideekin, jabetza eta ezagutza komunak landuz, proiektu eraldatzaileak ereinez. ●

Zortzi erailketa politiko



**ITZIAR BARDAJI
IRAKASLEA**

Mugak bitan banatzen du Euskal Herria, Europako estatu inperialistek zabalduak zauri bat. Inperialismo horrek eragiten du pertsona ugari bizitza arriskatzea hegoalde globaletik honat etortzeko. Gure muga ere tranpa bihurtu da, non migrazioa – logika kolonialari desobedientzia – gogor zigortzen den. Zortzi heriotza zigor aurten.

Gu, euskaldun natibo Zuriak, arrazismorik gabe azaldu ezin den kapitalismoan murgilduta. 500 urteko kolonialismoak eskainitako pribilegioez jantziak, bake soziala erosteko gastatzen den

mozkinen zati bat jasotzen dugu. Geurea da muga eta mugak sortzen duen mina.

Asko kostatzen ari zaigu heriotza horien aurrean kalera ateratzea. Erantzun masiboa ematea. Pribilegioak galtzeko beldur gara.

Planetako aberastasuna agortzen eta kontzentratzen darrari, pobre direnen eta izango direnen arteko lehiak pobre izango ez direnen etorkizunari egiten dio mesede. Eta zer gerta liteke benetan Europako herritarrok, desjabetuok, erresistentzia honi, migrazioari, lagunduko bagenio? ●